



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

*16/2014 FORU ARAUA, abenduaren 10ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena.*

VI. KAPITULUA

ERRENTA ESLEIPENAREN ARAUBIDEKO ENTITATEAK

*38. artikulua. Lurralde espainiarrean aritzen diren entitateak.*

1. Baldin eta atzerrian eraturako errenta esleipenaren araubideko entitate batek lurralde gipuzkoarrean jarduera ekonomikoa egiten bada eta jarduera osoa edo zati bat edozein motatako instalazio edo lantokietan jarraian edo ohituraz garatzen bada edo lurralde gipuzkoarrean entitatearen izenean eta kontura kontratatzeko baimendutako agente baten bitartez jarduten bada, zerga honen zergaduna izango da eta urteko autolikidazio bat aurkeztu beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak finkatutako moduan, honako erregela hauei jarraikiz:

1. Zerga oinarria osatuta egongo da 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 55. artikuluan entitateko kide ez-egoiliarrei dagokienez jasotakoaren arabera zehaztutako errentaren zatiaz, errenta non lortu den kontuan hartu gabe.

2. Kuota osoa kalkulatzeko, zerga oinarriari aplikatuko zaio Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 56. artikuluan 1. apartatuko a) letran jasotako karga tasa.

3. Kuota osoa gutxituko da 19.4 artikuluan establezimendu iraunkor bidez jarduten diren zergadunentzat finkatutako hobariak eta kenkariak nahiz konturako ordainketak aplikatuta, beti ere kide ez-egoiliarrei egozten zaien errentaren zatian.

2. Entitate horiek 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 56. artikuluan aipatutako aitopen informatiboa aurkeztu beharko dute, entitateko kide egoiliarrei egozten zaien errentaren zatiagatik.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatutako zergadunak behartuta daude zerga honen konturako ordainketa zatikatuak egitera, eta horretarako haien zenbatekoa autolikidatu eta ordainduko dute erregelamenduz finkatutako araei jarraituz.

4. Baldin eta aurreko 1. apartatuan aipatutako entitateetako kide ez-egoiliarretako batek zergapetze bikoitzerako hitzarmena aldarrikatzen badu, ulertuko da kide horiek kuotak ordaindu dituztela entitateak ordaindutako kuotak haiei dagokien zatian.